

Atxixaren (h)ilobia

Inaxio Lopez de Arana Arrieta

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2010



Zumaiko Udala

*enkarra
txanpan*



Atxitxaren (h)ilobia

Inaxio Lopez de Arana Arrieta

Julene Azpeitia 23. ipuin lehiaketa

2010

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Inaxio Lopez de Arana Arrieta (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Gazte-gazterik alde egin nuen etxetik. Gurasoekin ondo moldatu ez eta itsasoa ihesbide bakar ikusten nuen. Etxekoak ahal den urrutien uzteko gogoa nuen, eta bide batez, mundu zabalak eskaintzen zizkidan erronkei aurre egin. Paradisuaren bila abiatu nahi nuen, etxeko infernua atzean utzirik. Lehorrekoa izan arren, Eibarkoa, marinelen bizimoduak erakartzen ninduen txikitandik. Egun batean, gurasoei ezer esan gabe, Bilborantz egin nuen, porturantz, lan bila, etxeko bizimoduaren laztasuna luzeago ezin eramanik. Zamaontzi batean onartu ninduten, ontzi-mutil, hamasei urte bete nituen egunean. Nora zihoan ere ez nekien, bertan lan egiteko eskaintza onartu nuenean. Berdin zitzaidan; lehenbailehen itsasoratzea beste ardurarik ez nuen.

Hogeita bost urte egin nituenerako, zazpi itsasoak zeharkatuak nituen; kostaldean ere sarri ibiltzen ginenez, bost kontinenteetako hiri nagusietako asko ere ondo ezagutu nituen: New York, Rotterdam, Singapur, Londres, Yakohama... Eta halaxe ibiltzen nintzen, batetik bestera, munduan zehar, harik eta hirurogei urte bete nituen arte. Orduantxe kapitainak esan zidan itsasoan jarraitzeko behar beste indar ez eta atseden hartzeko tenorea nuela. Hamalau urte joan dira itsasoak utzi ninduenetik.

Orain lurlean bizi naiz, zaharren erresidentzia batean. Hemen arrotz sentitzen naiz, itsasoa izan baita nire benetako aberri eta maitale bakarra. Adore guztia galdu dut, itsasoa begien bistatik kendu didatelako. Orain ez daukat nire pozak eta nire penak nori kontatu. Mundua ezkutatu egin zaidala iruditzen zait. Mendeku gisa-edo ni ere ezkutatu natzaio munduari. Lau urte dira elkarri bizkarra emanda bizi garela. Harrezkero ez dut inorekin hitz egin. Besteek uste dute ezin dudala hitz egin; sendagilea bera ere iritzi horretakoa da. Baina nik hitz egin dezaket. Gauetz hitz egiten dut, nire buruarekin, ahapeka, inork entzun ez diezadan. Zertarako entzun behar zidaten, bada?

Dagoeneko inork ez du gogoratzen nire izena: Txomin. Izan, Domingo naiz, bai, baina garai batean lagunak "Txomin" deitzen zidaten. Lagunak hiltzeaz batera, Txominenak egin zuen, Domingorenak aspaldi egin zuen bezala. Erresidentzia honetan, "kapitain" deitzen didate, kontramaisua baino gehiago sekula izan ez banaiz ere. Alabak-eta, ordea, "atxitxa", guk Eibarren aitonari hala esaten baitiogu, etxe giroan behintzat. Amaiak txikitan baizik ez zidan deitzen "aitta", eta ama izan zenetik ahaztu omen du ni aita naukala. Horregatik ez diot hitz egiten; nazka-nazka eginda naukalako bere "atxitxa" horrekin. Apustu egingo nuke ni mintzeko egiten duela, ni sekula benetako aita izan ez nauela aurpegiratu nahi didalako.

Hala eta guztiz ere, behin hirurogeita hamalau urtera iritsiz gero, ezin da ezer eskatu, antza. Nik ez dut ezer eskatzen, behintzat. Oraindik ez dut galdu harrotasuna, aspaldiko urteotan kasik kulunkaulkitik edo ohetik atera gabe bizitzen ohitu naizen arren.

Zorionez, ez dut inoren laguntzarik behar komunera joateko. Oraindik neure kasa egin ditzaket ohetik konketara edo komun-zulora bitarteko zazpi urratsak. Dutzakoak ez. Astean behin gizon bat, erizain bat, etortzen da nire gelara, ni bainatzera. Besteei bezala, gizon horri ere ez diot ezertxo esaten; bere lana lasai egiten uzten diot. Horrelakoetan ere oso eroso izaten da isilpean geratzea. Bere lanari akabua emateko, zapi heze eta hotz bat pasatzen dit barrabiletatik; beti on egiten didala iruditzen zait. On egiten dit, bai, nahiz eta, jakina, inork ezin duen berpiztu aspalditik hilik dagoena. Batzuetan, komunera joaten naizenean etsi-etsian ikusten ditut ispiluan nire lotsariak; orduan bururatzen zait seguru asko nireak bezalakoak deskribatu beharrak eragingo zuela "lotsari" hitzaren sorrera.

Nire eskuek dagoeneko ezin diote eutsi garai batean munduko bazterrik galduenetan ere ferekatu nituen emakumeen ukimenezko oroitzapenari, baina buruan tinko atxikitzen ditut harako emakume haiek guztiak. Batzuetan, zinemagintzako kameralari baten gisan, begirada emakume haien gorputzen atal desberdinetan pausatzen dut: inoiz lepo lirain bat ageri da (Cynthiarena ote?), beti bezainbesteko zirrara eragiten didala; inoiz bular oparo pare batek lardaskatzen dizkit zentzumenak (Berhtarenak edo?), nire esku garai batean sendoen irrika bizia dutela; inoiz ere nire soak urrezko goroldio-zerrenda batekin egiten du tupust (Sakuraren hanka arteko altxorra akaso?), nire ametsetako nahiz amesgaiztoetako Gargantua oro-irenslea gogora dakarkidala. Bitxia da: askotan gorputz-atalak datozkit gogora, aurpegiak eta izenak aspaldi honetan erdi ahaztuak ditudan arren. Non ote dira emakume haiek? Oraindik bizi ote dira? "Amama" esango al diete, edo oraindik baten batek beren benetako izenez deituko die? Zahartzaroak halako anonimatu batez estaltzen gaitu.

Milaka emakumeren gorputzaren jabe izan naiz, bai, baina sekula ez dut haien arima ezagutu. Izan da, hala ere, barnea ukitu didan emakumerik. Kubako Trinitadekoa zen nire alaba bakarraren ama izango zena: Lisset. Nirekin ezkondu eta berehala hil zen gajoa. Halako batean, alargun geratu nintzen beraz; aita izan berritan, gainera. Ez nekien zer egin hiru hilabeteko umetxo harekin. Hoberik ezean, Euskal Herrira ekartzea erabaki nuen. Senide batzuen etxean onartu zidaten alaba. Haiekin hazi eta hezi zen Amaia. Nik itsasoan jarraitu nuen, nire askatasunari hauspoa emanez, eta itsasaldien bitarteko boladetan alaba bisitatzera joaten nintzen. Eta, oso oker ez banago, hori ez dit sekula barkatu Amaiak, hain kasu gutxi egin izana marinela nintzen garaian.

Alabaren semeak, Aimarrek, oraindik ez daki hitz egiten. Hori dela eta, pulamentuz pertsona bakar batek esaten dit "atxitxa", nire biloba izan gabe

gainera, Gustavo izeneko mutiko batek, ni paseatzera ateratzen nauen Kolonbiako emakumearen hamalau urteko semeak. Tania —horrela baitu izena emakumeak— duela hamabi urte etorri zen Euskal Herrira, alargundu berritan, eta, alabaren eskariz, astean hiru aldiz zahar-etxearen inguruko parke eta ibiltokietan batera eta bestera ibiltzen nau, nire gurpil-aulkiari bultza eginez, egurastu nadin. Baina bi asterik behin, astearteetan, Gustavo etortzen da amaren partez lan egitera, Tania arratsalde horretan saltsa dantzatzera joaten da-eta bere herrikideekin. Gustavo etortzen zaidan arratsalde horiei “arratsalde saltsero” deitzen diet, ez bakarrik egun horietan Tania saltsan aritzen delako, baizik eta, baita ere, egun horietan, nire buruarekin ez ezik Gustavorekin ere hitz egiten dudalako. Ez dut beste inorekin hitz egiten. Eta astearte arratsaldeetan bakarrik. Bi asterik behin.

Dena orain urtebete hasi zen, pattal samar nenbilen egun batean. Ohi denez, egun hartan ere begiak itxita eta nire baitara bilduta nengoen, eta halako batean, ez oso goraki, baina bai edonork entzuteko moduan bota nuen:

—Ostixa, hau dok hau bizkarreko mina!

Baina ez nengoen bakarrik; Gustavo nirekin zen, iritsi berria.

—Baina, atxitxa, hizketan ari zara! —esan zidan bere harridura eta alaitasuna ezkutatu ezinik.

Galdetu nion ea beste inor ba ote zebilen handik, eta ezetz erantzun zidan. Hori ikusita, itun bat proposatu nion: inori ez zion esango nik hitz egin nezakeela, eta nik, trukean, neure bidaietan bizi izandako abenturak kontatuko nizkion, sekula inori esan gabeak.

—Konforme; orain odolezko zina egin behar dugu —esan zuen.

Handik laster, bizar-xafla bat, alkohol pote bat eta kotoi puska bat zekartzala azaldu zen. Lasai-lasai ebaketa txiki bat egin zuen eskumutur batean, eta gero, niri beste bat egin zidan, leku berean. Aurreneko odol-tantak isurtzeaz batera, egindako zauri txiki haiek batu eta elkar besarkatu genuen. Kotoi zati bat alkoholez busti eta eskura eman zidan, nire zauritxoari zerion odol-jarioa eten nezan.

Harrezkero, biok bakarrik bagaude, abenturaren bat kontatzeko eskatzen dit eta nik, atseginez, ameto ematen diot haren eskariari. Bi asterik behin izaten dugu, beraz, kontakizun-emanaldia. Arratsalde saltseroetan. “llobia” deitzen hasi natzaio, guk Eibarren bilobari betidanik esan izan diogun moduan.

Erresidentziako erizain eta zaintzaileek ni ondo zaintzeko esaten diote Gustavori, kalera naramala ikusten dutenean. Berak buruaz baietz egiten die guztiei, lañotasunez, baina berehala konplizitate keinu bat egiten dit, eta kaleko atea atzean utzi orduko abenturaren bat kontatzeko eskatzen dit, hala baitago ezarrita gu bion artean hitzartutako itunean.

Ipuinak ez dira errepikatu behar; desberdinak izan behar dute. Askotan asmatu egiten ditut, edo benetan gertatutakoa puztu, haren arreta eta liluramendua neureganatzeko. Benetako gertaerekin, berehala hasiko litzateke aho zabalka, ziur nago. Asmatze-lan horrexek ematen dizkit buruhausterik handienak: kasik egun osoa ematen dut begiak itxita, lo banengo bezala, hurrengo abentura prestatzen, xehetasunik txikiak ere zainduz. Esaterako, aurreko kontakizun batean nik Argentinan guanako bat harrapatzean mina hartu badut hanka batean, orain ezin naiz arineketan ibili zekorren atzetik. Hala kontatzen badiot, segituan konturatuko da ez dudala sendatzeko astirik izan, eta batere beldurrik gabe ohartaraziko nau egindako errakuntzaz. Horrelakoetan, ahozko halako huts-

zuzenketa bat egin behar izaten dut bat-batean, eta "arineketa" esandako lekuan, "herrenka" esan nahi nuela adierazi. Amazoniako Yanomamien tribuko azti zaharrak aspaldi ilea galdu bazuen jaguar baten oldarraldi baten ondorioz, hurrengo batean ezin da agertu lakuan bere adats ederra orrazten. Gustavok berehala galdetuko lidake:

—Baina ez al zen burusoila?

Kinka larri horretatik, hala ere, ondo antzean atera ninteke: aztiak, azti izate hutsagatik, nahi duenean berreskura dezake ilea, edabe miragarri bat edanda.

—Baina ilobia —argitzen diot zorrotz—, hik ezingo heuke ilea errekueratu, hi ez haiz-ta aztia.

—A ze pena! —esaten du, eta arrazoi du: ni ere aztia banintz, ile faltarik ez nuke izango, berrogeita bost bete aurretik galdutako guztia, buruko ilajerik gehiena, pozarren berreskuratuko nukeelako.

Ni ez naiz kontalari bakarra; berak ere kontaktzen dit zer gertatzen den eskolan, kalean, telebistan... edonon. Behin esan zidan ikastolako neskato bat gogoko zuela baina ez zekiela zer egin hura konkistatzeko. Nik aholku argia eman nion:

—Esaixok lehenbailehen, ilobia, emakumeek ez juek-eta gizon koldarrik maite. Neskato horrek zerbait nahi bajok hirekin, lasai, zelanbait jakinaraziko deuk; baina hori bai, lehenengo urratsa heuk emon biok.

Handik astebetara negar batean etorri zitzaidan, neskak ezetz esan ziolako, ez zuela harekin ezer nahi; garrasika ere ibili ninduen ume malapartatuak. Errua nirea zela, ez dakit zer, badakit nor. "Tira, umekeixak! Espero dot berandu baino lehen ohartzea porrotak ondo eruaten jakittia funtsezkoa dala bizitza hontan", pentsatu nuen neure artean.

Hurrengo astearte saltseroan ez zitzaidan azaldu, amorruren amorruez; erresidentzian gatibu geratu nintzen arratsalde hartan. Aste hartako larunbatean etorri zen bakeak egin nahian. Barkatu egin nion noski, baina nire erretolika luze bat irentsarazi ondoren.

Bere amodio-aitorpen bakanak gorabehera, gure hartu-eman berezi honetan ni bera baino eskuzabalagoa izaten naiz. Nire garaiko gauzak, futbola, politika, orduko bizimodua, emakumeak (bai! emakumeak ere bai! hamalau urte dituen arren)... denetik kontaktzen diot, egia nahiz gezurra izan. Berak erne baino erneago entzuten dit eta nik Jainkoari eskerrak ematen dizkiot oraindik hitz egin dezakedalako, oraindik hizketaren bidez besteri harridura sortu eta neure buruari gozamina eragiteko gauza bainaiz.

Gaur egun, errealtatearekin lotzen nauen haria mehetuz doa: alaba oraindik etortzen zait, goizean beti, semea ikastolan utzi eta gero, "zer moduz, atxitxa?" ahotik dariola; suhia ere bai, berdin-berdin; sendagilea ere ikusten dut, aldiari behin; koskabiloak eta beste guztia trebezia handiz garbitzen dizkidan gizona ere bai, zorionez; Tania ere hortxe da, astean hiru aldiz, nire ibilaldietako sherpa nekaezina. Munduarekiko bost lotune horiengatik ez balitz, guztiz isolatuta nengo. Bueno, eta batez ere Gustavorengatik, nire benetako biloba bakarrarengatik, ilobiarengatik; hari esker bizirik nago oraindik, edo, hobeto esanda, bizirik nengoen. Atzo arratsalde saltseroa ez bazen ere, zahar-etxera etorri zen. Musu eman ondoren esan zidan:

—Atxitxa, bi hilabeterako noa Kolonbiara amarekin. Hitzeman behar didazu kanpoan naizen bitartean ez duzula beste hizketakiderik hartuko. Aurrerago ere zure kontuak entzuten jarraitu nahi nuke. Itxarongo didazu?

Ez nion ezertxo ere erantzun, alaba eta suhia iristeko zorian zeudelako, eta nik Gustavorekin bakarrik hitz egiten nuen. Saiatuta ere, ez dakit hitz egiteko gauza izango ote nintzen, hainbestekoa nuen-eta eztarrian sortu berri zitzaidan estura, kasik arnasa hartzen uzten ez zidana. Nik ere musu eman eta eskua estutu nion. Eskumuturrak elkarren parean jarri genituen, biok bagenekien zerbaiten ikur gisa. Badakit segituan ohartu zela izugarri nabarituko nuela haren huts-mina, aurrerantzean ez nuen-eta izango nori kontatu nire abenturak, mutiko hari hain gustura kontatzen nizkionak. Eta joan egin zen.

Gaur, Tania etorri da agur esatera. Aitortu didanez, bi hilabeterako ez dira joango, betiko baizik. Itxura denez, Euskal Herrian izan diren urte hauetan, beren herrian ondo-edo bizitzeko beste aurreztu dute. Taniaren ametsa azkenean gauzaturik. Gustavori oraindik ez dio egia esan. Ez du ondo hartuko. Amak ez du umea negarrez ikusi nahi, nonbait.

—Berak oso maite zaitu, jauna; askotan esan dit; eta nik badakit zuk ere maite-maite duzula, ez da egia? Gustavok lagun asko ditu, baina zurekin egoten da gusturen. Gaur gauean esango diot bagoazela eta ez garela bueltatuko. Batek daki, baina printzipioz ez dut itzultzeko asmorik, hemengo jendea nirekin oso ondo portatu bada ere. Opaguzu zortea, jauna, eta otoitz egin gure alde —eskatu dit goibeldurik.

Esateko guztia esana duela iritzirik kalerantz egin du. Begiak urtsu dituela iruditu zait. Bat-batean jiratu eta niganantz gerturatu da, bat-batean zerbait gogoratu izan balu bezala:

—A, eta beste gauza bat, jauna: gaur goizean eskatu dit zuri musu bat emateko eta zuen ituna zorrotz betetzen ari dela esateko. Eta lasterka atera da gero. Jauna, zer itun klase da hori?

Begiak itxi ditut, galdera entzun izan ez banu bezala. Begiak beti malkotan izaten ditudanez, ez dago jakiterik noiz diren nire malkoak tristuraren ondorio; une horretan, nik bakarrik nekien benetan negarrez ari nintzela. Begiak berriro ireki eta eskuaz keinu bat egin dut, "umeen gauzak"-edo esan guran.

Gustavok lasai alde egingo du eta bakarrik utziko nau, neure bakardade gorria beste lagunik izango ez dudala; aurrerantzean, itsasoaz oroitzeak ez nau asebeteko. Orain bai ez dudala inor izango aldamenen —bi asterik behin bada ere— hitz egiteko. Ustekabean harrapatu nau honek guztiak. Baina agian okerrago ere izan liteke, orain bai hil egin nahi dudalako. Hiltzeko gogoa daukat, bai. Hala sentitu behar omen da hirurogeita hamalau urteko giza hondakin bat. Nire adinean ez da ona bizitzeko gogoa izatea, Herioa lehenago edo geroago azaltzen delako eta ezustean harrapatzen zaituelako. Ni ez nau ezustean harrapatuko.

Orain alde egiteko gogoa daukat. Buruan dudan mundua eta Gustavo ilobiarentzat prestatuta neuzkan hamar edo hamabi kontakizunak eraman nahi ditut besapean. Ez dut neure buruaz beste egingo (zerekin baina?), baina hil egin nahi izatea nahikoa da benetan hiltzeko. Betidanik jakin izan dut hori. Benetan hil nahi duzunean hiltzen zarela.

Bihar izan daiteke nire azken eguna. Etzi, beranduenez. Inork ez du ezer jakingo. Ez sendagileak (inoiz pasa al zaio burutik hitz egin dezakedala?), ez erizainak, ez Amaiak, ez Antonio suhiak, ez inork. Itsasoarekin bat egingo dut azkenean. Unea iristen denean ohartuko dira guztiak, zertarako lehenago? Agian, orduan Amaiak aitta deituko dit; ordurako, berandu izango da, hala ere. Eta nik agurrik ere esan gabe alde egingo dut. Begiez adeitasunezko keinu arin bat egingo dut gehienez ere. Hitzak, zertarako? Egunen batean, Gustavok, nire benetako biloba bakarrak, ilobiak, jakingo du heriotzaren unean ere zintzo bete nuela gure odolezko zina, orduan ere isiltasunari eutsi bainion. Eta beste norabait joango naiz nire kontuekin. Edo inora ere ez. Bitxia da. Ilobia nire bizitzara azaldu aurretik ez nuen halako gogoeta ilunik egiten. Egia esateko, egunean-egunean bizirik irautearekin konformatzen nintzen, baina tira. Ilobiak ekarri zidan bizia, behar nuen gatza eta piperra. Eta oraintsu kendu ere bai, nire ondotik badoa eta. Hemendik aurrera nire bizitzak ez du zentzurik izango. Herioaren zain geratzea besterik ez dut, itsasoarekin bat egin dezadan. Ilobiak, nahi gabe, hilobi ertzera eramán nau.